

ATEGI

Garroia



Erosketa-prozesuan adituak gara eta gure bezeroen aurrerapena da gure xedea.

Gure helburua da gure bezeroei errentagarriagoak eta lehiakorragoak izaten laguntzea, dauden tokian daudela

Nazioarteko taldea dugu, guztira 35 espezialista baino gehiago mundu osoan (USA, Mexiko, Espainia, India, Txina, Vietnam eta Taiwan), erosketa integral bat eskaintzen duena eta bezeroaren beharretara pertsonalizatua

GURE BALIOAK

lankidetz

300 enpresak eta enpresa-taldek baino gehiagok erabaki dute beren erosketen kudeaketa ATEGIN zentralizatzea, kostuak murrizteko eta beren enpresa arloko eraginkortasuna eta errentagarritasuna areagotzeko

aurrerapena

Gure bezeroen mozkinak maximizatzeak eta gure inguruan aberastasuna sortzeak mugitzen, motibatzen eta inplikatzeko gaitu. Enpresa errentagarriak eta sendoak izaten laguntzea, eraginkorra da gure gizartean aurrerapen jasangarria (etika, gizarte, lan eta ingurumen arlokoa) sortzeko

espezialistak

Know how, profesionaltasuna, zorroztasuna, metodologia, taldea, esperientzia, etengabeko hobekuntza, etab...

ATEGIk kudeaketa espezializatua egiten du erosketa-familia bakoitzean (energia, garraioa, telekomunikazioak, etab.), bezero bakoitzaren beharretarako pertsonalizatzen du eta erosketa-prozesuaren zerbitzu osoa eskaintzen du

gertutasuna


Gertutasuna, entzute aktiboa eta elkarrekintza dira komunikazioaren oinarriko osagaiak. Eta gure bezeroekiko kudeaketan, aukeraz betetako bidea da komunikazio ona. Harreman guztietan konfiantza funtsezkoa dela ere badakigu, horregatik saiatzen gara gure lana egiteko modua eta metodologia gardentasun osoz partekatzen

ZERBITZUAK



Aholkularitza

- Lehiarako kokapenaren diagnostiko pertsonalizatua egiten dugu
- Zure enpresarentzako erosketa-estrategiarik egokiena aztertzen dugu (kostuak murriztu, prozesuak hobetu, nazioartekotzea, etab.)
- Eraldaketa plana diseinatzen eta hedatzen dugu
-



Erosketen Zentrala

- Erosketa irtenbidea pertsonalizatzen diogu bezero bakoitzari
- Erosketen kudeaketa bateratu eta zentralizatua egiten dugu
- Erosketa bolumenak pilatzen ditugu, beharrak koordinatuz
- Kontratazio eta zerbitzu baldintzak optimizatzen ditugu



Erosketa zerbitzuak

- Proiektuak neurrira egiten ditugu
- Hornitzaileen prospekzioa, ikuskaritza eta ebaluazioa egiten dugu
- Negoziatu egiten dugu, kontratuak eta esleipenak kudeatzen ditugu
- Erosketa prozesua antolatzen dugu
- Gastuaren kontrola aztertzen dugu

KATEGORI- AK

TRANSPORTE

Logistika tresna estrategikoa da eta lehiakortasuna hobetzeko balio du, enpresetako hornikuntza, ekoizpen eta banaketa prozesuetan eragina baitu.


Ondasun bat ekoiztea eta kostu lehiakorak izatea garrantzitsua den arren, logistikaren bidez bezeroak eskatzen dituen produktuak edo zerbitzuak eskura jartzea ere oso garrantzitsua da, une eta toki egokienean, baldintza ezin hobetan eta kostu optimoetan, ahalik eta modurik eraginkorrenean bete ahal izateko hornikuntza-kateko eskakizunak

- Ategin, garraio beharretarako irtenbideak diseinatzen eta ezartzen ditugu gure bezeroentzako, sektore eta tamaina desberdinetakoak izanik eta be-
raien beharrak bai lurreko, itsasoko eta airezko garraio mota bakoitzean
zerbitzu gama desberdinetan batuz.
- Gure aholkularitzarekin bezeroei balioa ematen diegu, bai izaera ekono-
mikoan zein kudeaketa optimizatuan, besteak beste hornitzaile taldea
edota zerbitzu sorta arrazionalizatuz



- Lehen mailako hornitzaileekin lan egiten dugu, gure bezeroei zerbitzu maila
hoberenak, malgutasuna eta garaiz egindako entregak eskainiz. Gure be-
zeroak hainbat tamainakoak dira eta sektore desberdinetakoak ere, on-
dorioz, beren beharrak ere askotarikoak dira; horregatik behar guztiak aset-
zen dituen soluzio diseinuan lan egiten aritu gara baterako erosketaren
printzipioa erabiliz.
- Garraio mota honetan gure bezeroen banaketa eta hornikuntza behar
guztiei estaldura eskaintzen duen zerbitzu-sorta handia garatu dugu, Ibe-
riar Penintsula eta Europa osoan estaldura emanez ondorengo zerbitzu
mota hauetan:
 - **Nazio mezularitza**
 - **Nazio eta nazioarteko paketeritza**
 - **Nazioarteko grupajea**
 - **Nazio eta nazioarteko karga osoa**

Aireko garraioa



- Gure bezeroek mundu mailan mugitu behar izaten dute merkantzia, hori dela eta, gure negoziaketak hornitzaile globalekin eta espezializatuekin burutzen ditugu bai aireko karga eta Courier zerbitzuetarako, mundu osorako estaldura eskainiz.
- Familia honetan zerbitzu hauek eskaintzen ditugu:
 - **Aireko karga**
 - **Nazioarteko mezularitza**

Itsasoko garraioa



- Gure bezeroek, itsasoko garraioa, beharrezko tresna bat bezala ulertzen dute beraien garapenerako eta nazioartekotzerako. Ategin, erosketa kategorian honetan, negoziazioak garatu ditugu behar honi erantzuteko.


▪ Kontenedore osoa (FCL)

- Gure bezeroei salneurri eta zerbitzu baldintzarik hoberenak eskaintzen dizkiegu beren inportazio eta esportazio beharretarako, ontzi-konpainia nagusiekin ditugun zuzeneko harremanei esker; beharrezko portu guztiak estaltzen ditugu, joan-etorriko denborarik hoberenak eta espazioa babesteko akordiorik hobere-
renak, kosturik hoberenean, beste balio-ekarpenen artean.
- Negoziatio hauek osatzeko, itsasoko ontziratzeak koordinatzen eta kudeatzen ditugu mundu osoan presentzia duten eragile logistiko globalekin; bidalketak bermatzen dituzte eta gure bezeroen logistika katean behar guztiei erantzunak ematen dizkiete.

▪ Grupajea (LCL)

- Gure bezeroen itsas-grupajeen beharrez ere arduratzen gara. Beharren eta erosketa bolumenen taldekatzearen bidez, inportazioan eta esportazioan ezarpen globala behar duten zerbitzuen kostua eta kalitatea hobetzen dugu, ontziratzeen koordinazioa eta kudeaketa errazten baitituzte.

KATEGORIA GEHIAGO



KONTAKTUA

Zortzi toki ezberdinetan kokaturiko nazioarteko taldea dugu, bezeroak behar duen lekuan zerbitzua eman ahal izateko



Bulegoak

Bulego zentralak

Parque Tecnológico Garaia
Edificio B, 3a planta
20500 Arrasate/Mondragón
Gipuzkoa/Guipúzcoa – España

T: +34 943 71 19 30
FAX: 943 77 31 01
comunicacion@ategi.com

Como llegar

China, Shanghai

Ategi Trading (Shanghai) Co.,
Ltd.
Room D/F2,14F, East Ocean
Center Phase II,
No. 618 Yan An East Road,
Huang Pu District,
Shanghai, 200001, China

T: 86 21 63410728/29/30

Como llegar

China, Shenzhen

Room 20Cb-A1, 20F, Block B.
Bank of China Tower.
Caitian Road, Futian District,
518036, Shenzhen, China.

T: +86 75583752452,
F: +86 75583752453

Como llegar

Taiwan

T: 0086 2163410729

Vietnam

6th floor, Rolanno Business
Center.
157 Vo Thi Sau St, Ward 6, Dist. 3,
HCMC, Vietnam.

T: +84 838206034
F: +84 838207335
Cómo llegar

India

F-89/8, 1ST & 2ND floor. Okhla In-
dustrial Area.
Phase I. New Delhi-110020

T: +91 11 40649000,
F: +91 11 40649001
Cómo llegar

USA

1401 New York Avenue, NW,
Suite 1225
20005 Washington, D.C.
Estados Unidos

T: +1 202-463-7877
F +1 202-861-4784
mpeck@mapagroup.net

[Como llegar](#)

México

Ejército Nacional 678, Oficina
201
Colonia Polanco
C. P. 11550 MEXICO DF

T: 3097-5811

[Como llegar](#)